



*Julene
Azpeitia
Lehiaketa 2017*

*Ipuinak
Olerkiak
Bertsoak*

Julene Azpeitia lehiaketa



2017. urtea

Argitaratzailea: _____



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Laguntzaileak: _____



**Bizkaiko Foru
Aldundia**
Kultura Saila

*Argitalpen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren
Kultura Sailaren laguntza jaso du*



KULTURA SAILA

Izenburua: Julene Azpeitia Lehiaketa. 2017. urtea

Azala eta barruko marrazkiak: Imanol Larrinaga

Argitaratzailea: Durangoko Udala

Maketazio eta fotomekanika: Gertu. Oñati

Inprimategia: Gertu. Oñati

Lege Gordailua: SS-1424-2014

2017ko azaroa

HITZAURREA..... 7

Olaia Albizu Gallastegi
Euskara, Kultura eta Hezkuntza batzordeko presidentea

IPUINAK

BETAURREKO MAGIKOAK 11
Miren Odriozola Cobo

BESTE ALDEAN 17
Kimetz Lopez de Etxezarreta Casado

PLAZA EDERRA 23
Laida Ardanza Udondo

GEREZIONDOA ETA KATTALIN 29
Oneka Etxegibel Uribe

OGI USAINAREN ITZALEAN 35
Laida Aizpurua Larrinaga

NIRE BIZITZA HEBRONEN 43
Nahia Dominguez Gorostiaga

HUTSA 51
June Azkarate Irigoras

HARRIZKO ESKUAK, ARRISKUAK 59
Nerea Urresti Gandiaga

HAMAR MINUTU 69
Karmele Mitxelena Etxebeste

OLERKIAK

ZER DA BIZITZA?.....	83
<i>Tessa Varela Elfrink</i>	
NIRE BIHOTZA.....	87
<i>Oneka Etxegibel Uribe</i>	
KOLORE BELTZA.....	91
<i>Nerea Unzueta Jaio</i>	
LURRAREN MEMORIAK.....	95
<i>Inati Baceta Agirre</i>	
MALABARISTA IZAN NAHI DUT.....	99
<i>Jon Ander Urkiaga Egidazu</i>	

BERTSO PAPERAK

MUTILAK=NESKAK.....	105
<i>Lander Bikandi Fonseca, Egoitz Ikobalzeta Bilbao, Jon Ojanguren Cajaraville</i>	
EUSKALDUNAK GARA ETA HARRO GAUDE.....	109
<i>Elene Elguezua Atucha, Urko Sarriugarte Irisarri, Naia Presno Magunacelaya, Paul Magunazelaia Eguen</i>	
ZURI.....	113
<i>Iruri Altzerreka Martinez</i>	
PANPINA.....	117
<i>Aitor Albistur Pulido</i>	

hitzaurrea

Kaixo denoi,

Julene Azpetia sari banaketara jende asko joaten da: sarituak, familiak, lagunak, eta abar, eta beti leku arazoak edukitzen ditugu, horregatik aurten Julene Azpetia sariak Plateruenean (Kafe Antzokian) eman dira. Gure ustez, sariak bertan emateak, Julene Azpetia lehiaketari ikusgarritasun gehiago eman dio, eta antzokiko tabernan egondako herritar askok lehiaketaz interesatu egin dira eta sariak zertaz doazen ikusi dute.

Lehiaketan gazte askok parte hartu du, eta lan guztien maila oso ona izan da, eta noski sariak aukeratzea zaila izan da. Horregatik, aurten saririk jaso ez dutenak ere gogorarazi nahi ditugu idazteko gaitasuna dutelako eta, berandu baino lehen, eurak ere sarituak izango direlako.

Azkenik, gauza bat gehitzea eta azpimarratzea gustatuko litzaidake: Durangoko idazle gaztetxoen maila oso ona da, eta lehiaketa hau horren adierazgarri da.

Hortaz, zorionak parte-hartzaile guztiei, guretzako denak zaretelako irabazle.

Eskerrik asko eta besarkada handi bat.

Olaia Albizu Gallastegi

Euskara, kultura eta hezkuntza saileko presidentea

juleneazpeitia

lehia keta

2 0 1 7



Ipuinak



Miren Odriozola Cobo

Irabazlea 11-12 urte bitartekoen sailean

Kurutziaga Ikastola

julene azpeitia lehiaketa • 2017 urtea



Betaurreko magikoak

Bazen behin neskatila bat Ane izeneko. Betaurreko denda batera joan zen betaurreko batzuk erosi behar zituelako. Erositakoan ez zekien betaurreko magikoak zirela eta itsu batek betaurreko haiekin ikusi ahal izango zuela.

Egun batean Ane lagun batzuekin geratu zen jolasteko eta bere betaurreko magikoak erakusteko, denei gustatu zitzaizkien. Urdin argi kolorekoak ziren eta eguzkitik babesteko erabiltzen zituen.

Behin Ane bere betaurreko magikoekin parkera joan zen eta, jolasean zebilenez, betaurrekoak jesarleku batean utzi zituen, eta itzuli zenean ez zeuden han. Ane oso triste eta negarrez joan zen etxera.

Handik egun batzuetara Ane parketik zebilela neskato bat ikusi zuen bere betaurreko urdinak ipinita, neska itsua zen eta betaurreko haiekin ikusi egiten zuen. Ane oso pozik jarri zen neska itsuak orain bizimodu hobea zuelako. Beraz neskatoari bere betaurreko magikoak oparitu zizkion eta itsuak Aneri eraztun more bat. Itsuak esan zion eraztun magikoa zela eta lagunak egiteko zela. Eraztunaren magiarekin Ane eta itsua betirako lagun min bihurtu ziren.

Anek bere lagunei kontatu zien bere eraztuna magikoa zela, baina hasieran ez zioten sinetsi. Baina ikustean Ane eta itsua hain lagun onak zirela, bere lagunek ere eraztun magiko bat lortu nahi zuten. Baina eraztuna lortzea ez zen erraza, bakarrik lortu ahal zen pertsona bati lagundu eta mesede bat eginez.

Aneren lagunek ere lortu zuten zerbait magikoa, konturatzea beraien laguntasuna oso garrantzitsua zela arazoren bat zuten pertsonentzat.





Kimetz Lopez de Etxezarreta Casado

Akzesita 11-12 urte bitartekoen sailean

Nevers Ikastetxea

julene azpeitia lehiaketa • 2017 urtea



Beste aldean

Ipuin hau Rick izeneko mutiko arrunt batekin hasten da. Rickek 11 urte ditu eta bere familiarekin bizi da Eskozian, mendien artean dagoen herri txiki batean. Ile hori-horia, begi urdin argiak eta azala elurra bezain zuria du. Ez da ez oso argala ez oso lodia, beso luzeak ditu, baina hanka motzak. Jende asko dagoenean, oso lotsatia da, baina bera bakarrik dagoenean munduko ausartena da. Bere herrian ez dagoenez eskolarik 25 kilometrotara dagoen hiri batera joan behar da egunero autobusez. Bere eskola oso handia da, kirol-instalazio nahiko ditu eta ikasgela guztiak interaktiboak dira. Eskolan lagun asko ditu, baina, hoberenak Scott eta Aileen dira.

Egun batean, bere herrira iritsi ondoren, Rick, etxera joan zen merienda hartzera eta beretzat ezezaguna zen mendi batera joan zen esploratzera (beti egiten duen bezala). Baina bidean bi bide zeuden aukeratzeko, okerrekoa aukeratu zuen eta azkenean galdu egin zen. Orduak eta orduak eman zituen ibiltzen. Gaua iristean euria egiten hasi zen eta Rick kobazulo batean ezkutatu zen.

Esnatzean kobazuloa esploratzea erabaki zuen. Kobazuloa granitoz eginda, estalaktitaz beteta eta iluna zegoen baina marrazki batzuk ahal ziren desberdindu horman. Marrazkiak ez ziren kobazuloetan dauden marrazkiak bezalakoak (lehen gizakiek marraztutakoak), ezberdinak

ziren. Hainbat munstro arraro eta samurai zeuden, ematen zuen borrokan zeudela. Hori ikusi eta gero aurrerantz jarraitu zuen.

Kobazuloaren amaieran Rickek zulo bat aurkitu zuen, hortik lur lehor-lehor bat ahal zen ikusi. Zeharkatu eta bat-batean munstro bat agertu zen bere aurrean. Munstroak sei begi, lau garro, bi adar eta buztan luze bat zituen. Ez zuen jator itxura baina ikusi zuen Rickek poltsikoan zuen gozokia eta kendu egin zion. Hitz egiten hasi ziren eta minutu batzuetan lagunak egin ziren. Munstroak Wiki zuen izena eta kontatu zion lur horietan gudu bat zegoela: samuraiak munstroen kontra. Mende bat aurrerago izandako eztabaidaren ondorioz gertatu zela.

Bidea jarraitu zuten biek , eta bat-batean harkaitz batetik salto egin zuen samurai batek. Ezpata batekin Wiki hiltzera joan zen baina Rick erdian jarri zen eta oihuka esan zuen ez zutela borroka egin behar, lagunak izan behar zirela. Berehala egin ziren lagunak.

Samuraiak Sang Chi zuen izena eta neska zen. Bere herrira eramán zituen lagun berriak. Herria erakutsi ondoren, Rickek bere etxera joan behar zela esan zuen baina beste egun batean bueltatuko zela hitz eman zuen. Kobazulotik atera eta etxerantz abiatu zen, bidea jakin ez arren. Minutu batzuk eta gero bere etxea aurkitu zuen: harrituta geratu zen. Etxean sartu eta ama erratza pasatzen ikusi zuen. Amak Rick ikustean betiko moduan agurtu zuen. Orduan konturatu zen kobazuloa magikoa zela eta hor pasatzen den denbora, errealitatean, ez dela pasatzen. Hurrengo egunean bueltatu zen, lehenengo, munstroen hirira joan zen, Wiki bilatzera. Wiki aurkitu eta samuraien hirira abiatu ziren biak. Sang Chi aurkitu ondoren, urrun zegoen lautada handi batera, inork ez ikusteko. Hitz egin, jolastu eta erabaki zuten astean behin hiru lagunak elkartzera leku horretan. Era berean inori ez esatea erabaki zuten, sekretua izatea.

Eta horrela amaitzen da ipuina... Edo... ez !!





Ipuinak



Laida Ardanza Udondo

Akzesita 11-12 urte bitartekoen sailean

Kurutziaga Ikastola

Julene Azpeitia Lehiaketa • 2017 urtea



Plaza ederra

Bazen behin ume bat Laida izena zuena. Euria parra-parra ari zenez, izeko Marianen etxean eman zuen arratsalde osoa Antonio Machadoren poema bat ikasten.

Gabean ohera sartu zen. Lotan geratu zen poeman agertzen zen damatxoarekin pentsatzen. Plaza borobil bat margotzen zegoela amestu zuen, eta goiko partean bi pisuko dorre bat margotu zuen. Damatxoa dorrearen goiko pisuan zegoen: antzinako soinekoa jarri zion, eta kapela bat lore batekin eta beste lore bat eskumako eskuan. Damatxoaren izena Angela zen. Eta itxaroten zegoen zaldun bat noiz pasatuko berarekin berba egiteko.

Zalduna agertu zenean, nondik zetorren galdetu zion. Zaldunak esan zion gudatik zetorrela eta etxera bueltatu behar zela, baina oso oso urrun bizi zela.

Angela damatxoa dorretik jaitsi eta zaldunaren etxera joan zen. Zaldunak Alexandro zuen izena. Angelak lore bat eman zion Alexandrori, eta janaria zaldiari.

Momentu horretan Laida umea esnatu egin zen.

Baina gauza harrigarri bat gertatu zen: goizean koadernoak hartzera joan zenean ikastolara joateko, konturatu zen koadernoan margotuta zeudela plaza, dorrea eta balkoia. Baina, Laidaren ametsean ez bezala, balkoian ez zegoen Angela damatxoa lorea eskuan eta beste lorea kapelan itsatsia.

Ikastolara joan zenean ez zion inori kontatu, inork ez zion sinetsiko eta.

*Plazak dorre bat dauka,
Dorreak balkoia dauka,
balkoiak neska bat dauka,
neskak lore bat dauka.
Zaldun bat pasatu da
Ez dakit zergatik pasatu dan,
eta enparantzara eraman du
bere dorre eta bere balkoiarekin,
bere balkoi eta neskarekin,
bere neska eta bere lore gorria.*





Ipuinak



Oneka Etxegibel Uribe

Irabazlea 13 -14 urte bitartekoen sailean

Kurutziaga Ikastola

julene azpeitia lehiaketa • 2017 urtea



Gereziondoa eta Kattalin

Han dator Kattalin, belartza leunaren gainean korrika batean, saltoka, izugarrizko irribarre batekin ahoan. Bere ile marroia haizearekin dantzan dagoela dirudi, alde batera lehenengo, bestera gero. Urrutitik ikusten zaizkio bere begi berdeak, eta nahiz eta hemendik ezin ditudan ondo ikusi, badakit bere aurpegi argi horretan milioika peka daudela.

Nire albora heldu da eta egin duen lehenengo mugimendua nire adar batean zintzilik dagoen txintxaunera igotzea izan da. Pisuagatik zertxobait mugitu da nire adarra, eta goialdean dauden lore zuri batzuk erori dira nire sustrai luzeen ingurura. Egunero bezala, kantari dabil:

- ...*kale erdixen ez dot inoren baimenik biher, dantzan hasten naz ieee...*

Pozik dagoela igertzen da.

Gaur ere Kattalin larrearen beste aldean ikusi dezaket dantzan, jolasean, bere irribarre hipnotizatzailearekin. Astebururo bezala, nire adarreko txintxaunean eseri da gaur ere, kantari noski:

- ...*Musikaren itzalean dantzalekua musikaren doinuaaaaaa...*

Horrela joan dira egunak, egun hauek bihurtu dira asteak, eta asteak urteak.

Udaberria heldu da jada, nire inguruko larreak txibiritaz bete dira, baina hauek ez dira oso bizilagun egonkorak, berriz ere euria egiten duenean, denak ihesi joango baitira.

Gaur larrearen beste aldean ikusten dut. Kattalin jada ez da saltoka eta korrika zetorren umea dezente aldatu da: Ilea luzeago daroa eta ez dauka lehen bezala motots edo trentza batean lotuta. Aurpegian pekez gainera granotxo batzuk ditu, bereziki sudurrean eta bekokian. Gorputzean izan ditu aldaketa gehienak, bularraldean bere kamiseta beltzari forma berezia ematen dioten bularrak hazi zaizkio eta praka bakero estu horiekin aldaka zabalak erraz sumatzen dira.

Baina gaur ez da bakarrik etorri, berarekin batera neska bat dator: neska honek Kattalinen adina dauka, ile hori luzea dauka, solte daroana. Begi urdin handiak dauzka eta ezpain potoloak. Kattalinen gorputz antzerakoa dauka, baina mostaza koloreko kamisetaren azpian bularrak ez dira hain nabarmenak eta praka estuetan ez dira aldakak erraz igartzen.

Nigana hurbildu dira eta txintxaunean jesarri beharrean belartzan jesarri dira. Hitz egiten hasi dira, zerbait sumatzen dut bien artean, ez da tentsioa, lotsa ere ez, zerbait da, baina ez dakit ziur zer den.

Kattalin eta Maddi denbora luzez egoten dira hemen, hitz egiten, larrean etzanda lainoak begiratzen... Jada uda hasi da eta udaberriko praka luzeak etxean utzi dituzte praka laburrak janzteko.

Gaur beti bezala biak larrearen beste aldean ikusi ditut, lasai -lasai datoz. Nire albora heldu dira eta belartzan eseri dira lainoei begira. Hitz egiten hasi dira eta horretan jardun dute denbora luzez. Jada eguzkia sartzen ari da.

Maddi Kattalinen alboan dago eserita, Kattalin hitz egiten ari den bitartean, Maddik begirada bizia dauka. Zerbaitetan ari da pentsatzen. Kattalinek ez du ezer berezia sumatu, lasai batean jarraitzen baitu hitz egiten. Halako batean, Maddi lurretik altxatu eta musu bat eman dio Kattalini ahoan.

Kattalin ustekabean harrapatu du, ez zuen horrelakorik espero, eta harri bat bezain geldi geratu da; Maddi berehala konturatu da eta gelditu egin da. Maddi nire adarreko txintxaunean eseri da, burumakur, malkoak erortzen ari zaizkio begietatik.



Kattalinek lurrean eserita jarraitzen du geldi-geldi. Horrela pasatu dira minutuak eta halako batean, Kattalin lurretik altxatu eta txintxaunerantz zuzendu da. Maddiren aurrean makurtu da, kokotsa altxatu dio malkoak eskuarekin garbitzeko. Jarraian musu eman dio ahoan.

Maddik ez zuen horrelakorik espero, baina hala ere, musua itzuli dio.

Uda osoan zehar etortzen jarraitu dute, ia egunero etortzen dira biak batera eskutik oratuta. Iraila hasi da jada, eta gaur ez dut larrearen beste aldean bikoterik ikusten, Kattalin bakarrik dator. Astiro-astiro ari da hurbiltzen, burumakur dator, zerbait gertatu da.

Txintxaunean eseri da, kantuan dabil:

- *Lili bat, hartu, eta hostoz hosto erantzi -negarrez ari da- eta harek zu ere amets eta harek zu ere erantzi...*

Negarrez jarraitu du malko gabe geratu arte. Hitz egiten hasi da ahots apurtuarekin.

- Bukatu da, -berriz ere negarrez hasi da. Gu bakarrik geratu gara Gereziondo, gu geratu gara uda zoragarri honen testigu -esan du erdi negarrez. Gu bakarrik, Gereziondoa eta Kattalin.

- Gereziondoa.



Ipuinak



Laida Aizpurua Larrinaga

Akzesita 13 -14 urte bitartekoen sailean

Kurutziaga Ikastola

julene azpeitia lehiaketa • 2017 urtea



Ogi usainaren itzalean

Ogi usainak itzartzen nau egunero, egin berri dagoen ogiarenak. Larunbat-igandetan berriz, karolina, txokolatezko palmera, relanpago eta beste pastel gozo batzuen usainak batzen zaizkio ogiarenari. Izan ere, okindegi baten atzeko hormaren kontra egiten dut lo kartoï batzuen eta manta zahar baten gainean. Nire ondoan dagoen gizonak asmatu ezineko kolorea duen zakua dauka ohetzat. Biok okindegiaren labeak berotutako horma erabiltzen dugu berogailu moduan.

Izenik gabeko txakurra naiz. Arrazarik ere ez dut. Betidanik kalean bizi izan naiz eta badakit beldurra eragiten dudala jendearengan. Handia naiz eta begi bitxiak ditut, bakoitza kolore batekoa; ezkerrekoa marroia da, eskumakoa, aldiz, urdin argi-argia, ia-ia zuria. Gauzak desberdin ikusten ditut batetik eta bestetik, marroiarekin denon antzera ikusten dut, baina urdinarekin pertsonen barrualdea arakatzeko gai naiz. Ez ditut bihotza, gibela, burmuina edota birrikak ikusten, pertsonen sentimenduak baizik.

Ahalmen hori txikitatik izan dut eta sarritan erabili dut. Azkenaldian, pobreekin. Eskumako begiarekin etxerik ez daukan pertsona bat triste dagoela konturatzen naizenean berarekin joaten naiz bizitzera denbora batean, eta konpainia egiten diot.

Orain aterkiak eta zapatak konpontzen dituen denda baten atarian topatu nuen gizon batekin nago. Katilu bat zeukan eskuan eta “una

ayudita por favor” esanez eskatzen zion dirua bere ingurutik pasatzen zen edonori. Hari begira geratu nintzen apur batean eta ezkerreko begiak erakutsi zidan gizon txikia eta argala zela, bizarduna, ilegorria, eta bere tamainak eskatzen zuena baino neurri handiagoko arropa zeramala, prakak kordelezko soka batekin lotuta gerrira. Eskumako begiarekin berriz, triste eta bakarrik sentitzen zela ikusi nuen eta horregatik hurbildu nintzen berarengana. Ondo hartu ninduen eta ondo tratatzen nau. Gizona ez da oso berbatia baina beti dauka niretzako ogi zatiren bat, eta oso noizean behin laztanak egiten dizkit. Goizero, oso goiz, nire laguna dirua eskatzera doanean, ni hemen geratzen naiz, okindegiaren atzean, epel-epel, zakua, kartoiak eta lekua zaintzen. Ez dago ezer zaintzeko behar handirik, izan ere, hemendik ez da apenas inor ibiltzen egun osoan.

Bertatik hamabi bat urteko neskatoa ikusten dut pasatzen ikastolara bidean. Nahiko gizona da eta ez oso altua. Marka deigarria darama aurpegian, jaiotza marka gorri-marroixka bekokian eta horrek berezia egiten du. Bera da kale abandonatu honetatik igarotzen den ume bakarra. Begira geratzen natzaio eta begi urdinarekin bere barrua arakatzen dut. Ez dakit zergatik baina, asko kostatzen zait, oso arraroa da, baina lortu arte jarraitzen dut hari begira. Beti triste eta beldurtuta doala ikusten dut. Ikastolatik bueltan datorrenean, beste horrenbeste, eta inoiz negarrez ere joan izan da.

Joan den astelehenean, bere pausu hotsekin batera oihu batzuk entzun nituen: bakarrik ez zegoela konturatu nintzen. Beste ume batzuen ahotsak entzuten nituen. Hasieran ez nuen ulertzen zer esaten ari ziren baina gero argi eta garbi heldu zitzaizkidan hitzak. *Ballena, vaca gorda, cara sucia* eta antzeko perlak botatzen zizkioten neska gaixoari. Burumakur heldu zen nire parera eta begi urdinarekin ikusi nuen etsi-etsita zegoela, barrutik negarrez.

Orduan amorratu egin nintzen. Buruko eta kokoteko ileak latz jarri eta hortzak erakutsi nizkien atzetik zetozen hiru ikaskideei, neskatoa defendatu nahian. Susto itzela hartu zuten eta hirurak izu-izu eginda korrika desagertu ziren agertu ziren bide beretik. Jiratu nintzenean, neska begira neukan, iruditu zitzaidan irribarre egiten ahalegintzen zela eta

berarengana hurbildu nintzen. Lehenengoz entzun nuen bere ahotsa. Burua laztantzen zidan bitartean, eskerrak eman zizkidan eta pixka bat lasaitzean etxerantz abiatu zen.


Bederatzi egun igaro dira kontu itsusi hura gertatu zenetik eta, ordutik, goizero laguntzen diot ikastolaren ateraino, eta arratsaldean zain izaten nau. Batzuetan isil-isilik dator, beste batzuetan aldiz, berba egiteko gogo nabari zaio. Horrela jakin dut gelan berarekin sartzen direla, baztertuta dagoela eta aukerarik txikiena baliatzen dutela bere kontura barre egiteko. Ez du ulertzen zergatik jokutzen duten hain gaizto berarekin, neskatoak ez diolako inori kalterik egin. Bost hilabete daramatza antzerako erasoei eusten, irakasleak ez dira ezertaz enteratu eta etxean ez du ezertxo kontatu. Hori guztia entzuten diodan bitartean, begi urdinak dio barrualdea ilun-ilun daukala. Baina ez da beti horrela izaten, inoiz gauza alaiak entzun dizkiot. Barku kapitaina izan nahi du, itsasoa maite duelako eta iaz gurasoekin kruzero batean ondo baino hobeto ibili zelako. Hori kontatu zidanean barrualdea urdina zeukan, ia ia nire begiaren kolorekoa.

Niri berba egiteko gaitasuna izatea gustatuko litzaidake. Esango nioke nahi duena lortu dezakeela, baita munduko barkurik handienaren kapitaina izatea ere, baina orain gurasoekin eta tutorearekin hitz egin beharko lukeela, bere pena guztiak hasiera-hasieratik kontatzeko, lagundu egingo diotela, oso gaztea dela hain karga astuna aldean eramateko, pozik bizitza merezi duela eta beste hainbat kontu. Baina zoritxarrez, ezin dut hitz egin. Bere ondoan joatearekin konformatzen naiz. Noizean behin gorputza igurzten dut haren hanken kontra, nik ere laztandu nahi dudalako.

Gaur, eskola eguna izan arren ez da agertu eta urduri jarri naiz. Gaixorik dagoela pentsatu nahi dut. Atzo arratsaldean, inoiz baino buru-makurrago zegoela iruditu zitzaidan, bere barrualdea inoiz baino ilunago, eta behin bakarrik begiratu zidan, agurtzeko unean.

Ona izan zara nirekin, nire lagun bakarra izan zara - esan zidan buruan musu bat eman aurretik.

Hitz eta keinu gozoak izan arren, gorputzaldi txarra geratu zitzaidan. Goizean, egunero itzartzen nauen ogiaren usainari beste bat nahastu zaio, inoiz ezagutu ez dudana eta ez zait bat ere gustatu.



Bakarrik eta arduratuta igaro dut eguna. Iluntze aldera, nirekin bizi den eskalea pozik heldu da gure txokora:

Begira zer aurkitu dudan zabor-ontzi batean. Gainera, funtzionatzen du! - esan dit.

Irratia erakutsi dit. Emozioaren emozioz eskuek dardara egiten diote eta segituan piztu du aparatua. Albisteak ematen ari dira. Hamabi urteko neskato batek bere buruaz beste egin duela dio esatariak.



Ipuinak



Nahia Dominguez Gorostiaga

Akzesita 13 -14 urte bitartekoen sailean

Kurutziaga Ikastola

julene azpeitia lehiaketa • 2017 urtea



Nire bizi-tza Hebron-en

Ba al dakizue Palestina non dagoen? Eta Zisjordania? Seguruenik, askotan entzun eta ikusiko zenituzten hitz horiek telebista, irrati eta egunkarietan. Bada, ni hantxe bizi naiz, Zisjordaniako Hebron herrian, hain zuzen ere. Herri batzuetan trena pasatzen da erdi-erditik eta herria trenbideak banantzen du. Nire herria aldiz, harresi erraldoi batek banatuta dago. Izan ere, 1967an Hebron Israelek konkistatua izan zen eta istilu eta arazo askoren ondoren, 1997an Palestinako presidentek eta Israeleko lehen ministroak hitzarmen bat egin zuten: Hebron bi zatitan banatzea harresi baten bidez. Hebrongo biztanleak banatuta geratu ziren, baita familia asko ere. Familia horietako bat nirea da, horregatik ni eta nire gurasoak harresiaren alde batean bizi gara eta aitita-amamak, nire arreba eta ilobak beste aldean. Nola sentituko zinatekete zuen aitita, amama, arreba eta ilobak gehiago ikusiko ez bazenituzte? Bada, ni horrela sentitzen naiz.

Nire izena Abdel da, 13 urteko mutiko beltzarana. Palestinar gehienak bezala, begi beltzak eta ile labur kizkurra daukat. Nire lagunek saskibalo jokalari ona izango nintzatekeela esaten didate, altua eta argala bainaiz. Ama askotan kexatzen da burugogorra naizelako eta sentimenduak adierazten ez dakidalako; aitak ordea, ausarta, idealista eta sentibera naizela esaten dit. Nire ustetan biek dute arrazoia, izan ere, negar egiteko gogoia askotan izaten dut, baina ez diot inori esaten.

Gaur goizean, zapatu oro bezala, amarekin merkatura joan naiz. Merkatura joaten gara aste osorako janaria erosteko eta baita astean zehar gertatutako gauzen berri izateko ere. Izan ere, merkaturan jende asko elkartzen gara eta momentu ona izaten da bata besteari albisteak kontatzeko. Ni ogi bila joan naizen bitartean, ama lagun batzuekin hitz egiten geratu da. Itzuli naizenean, ama negarrez aurkitu dut:

- Ama, zer gertatzen zaizu?
- Anisa nire lagunak zure amama hiltzorian dagoela esan dit.
- Baina harresiaren beste aldean dago, ezin izango dugu ikusi.

Ni ere negarrez hasi naiz eta amak besarkatu egin nau. Momentu horretan, erabaki bat hartu dut: harresia zeharkatu eta amama hil aurretik agurtzera joango naiz. Badakit Hamalen aitak egun batean harresia zeharkatzea lortu zuela, Hamalen anaia nagusiak botikak behar zituelako eta botika horiek harresiaren beste aldean baino ez daudelako. Horregatik, korrika batean Hamalengana joan naiz:

- Hamal, Hamal, ba al dakizu zure aitak nola lortu zuen harresiaren beste aldera pasatzea?

- Uste dut harresia babesten dagoen soldadu batek lagundu ziola. Baina, zertarako jakin nahi duzu?

- Nire amama azken aldiz ikusi nahi dut, laster hil egingo da eta.
- Lagundu egingo dizut. Goazen soldaduarengana.

Errekako zubia zeharkatu eta harresira heldu gara. -Geldi hor. Nortzuk zarete? Nora zoazte? -oihua entzun dugu. Gu hasieran ikaratu egin gara baina arnasa sakon hartu eta gure asmoa azaldu diogu.

- Gaur gauean lagunduko dizut -erantzun dit soldaduak-, baina zerbaiten truke izan beharko da. Hiru gauza ekarri beharko dizkidazu: daukazun gauzarik preziatuena, daukazun gauzarik ederrena eta daukazun gauzarik goxoenena.

Etixerako bidean zer eramán pentsatzen joan naiz baina ez zait ezer bururatu. Ama berriro negarrez aurkitu dut etxean eta nire asmoa eta

soldaduak esandakoa azaldu diot.

- Zoratu egin zara? Ez dizut harresia zeharkatzen utziko, ez zaitut zu ere galdu nahi!- oihukatu dit amak.

- Amama agurtu nahi dut, ama. Utzi joaten eta zure partez ere muxu bat emango diot. Beraz, lagundu mesedez -amak begietara begiratu dit.

- Ausarta zara ume. Ondo dago, hiru gauzak zeintzuk diren pentsatuko dugu.

- Daukadan gauzarik preziatuena badakit zer den: txikitan aitak emandako kristalezko pilotatxoa.

- Nik argi daukat, zuk daukazun gauzarik ederrena zure ahotsa dela eta gauzarik goxoen zure muxu bat dela, baina ez dakit soldaduak onartuko dituen.

Gaua heldu da. Soldaduarengana joan eta hiru gauzak eskatu dizkit. Poltsikotik pilotatxoa atera dut.

- Hau al da zure gauzarik preziatuena?- egin du barre soldaduak.

Negar-antuluak erortzen hasi zaizkidan arren, kantatzen hasi naiz. Soldadua isildu egin da, orain ez du barrerik egiten.

- Ahotsa da nire gauzarik ederrena, horregatik ekarri dizut nire kantua eta nire amak esan dit nik dudan gauzarik goxoen muxu hau dela.

Soldaduarengana hurbildu eta muxu eman diot. Soldadua ere negarrez ari dela konturatu naiz, eta ezer esan gabe, harresia pasatzen utzi dit.

Ziztu bizian joan naiz amamaren etxera eta bere logelan sartzen ikusi nauenean besoak zabaldu ditu ni besarkatzeko:

- Ene Abdel maitea, zelan lortu duzu hona heltzea?

- Berdin dio amama, zu ikustera eta amaren partez muxu bat ematera etorri naiz.

- Hau poza! Nire ametsa egia bihurtu al da? Geratu mesedez nirekin nire azken egunak pasatzeko. Eman eskua eta nire azken ametsa kontatuko dizut: Askotan, lo nagoenean eta esna nagoenean ere, gure herria banatzen duen



harresiaren gainean zubi ikusezin bat amesten dut. Zubi horretatik zehar batetik bestera pasatzen gara eta familia lehen zegoen bezala ikusten dut, “batuta, alai eta zoriontsu”. Bere azken hitza esan eta gero, negarrez hasi da. Handik minutu batzuetara, niri begira dagoela, hil egin da.

Ni pentsakor gelditu naiz, eta azkenean, erabaki garrantzitsu bat hartu dut: amamaren ametsetan agertzen zen zubia eraikiko dut eta zubi hori ezinezkoa izango balitz harresia apurtuko duen tramankulu bat asmatuko dut.

Beraz, egunen batean nire izena telebistan entzuten baduzue ulertuko duzue zergatik apurtu dudan harresia.



Ipuinak



June Azkarate Irigoras

Irabazlea 15 -16 urte bitartekoen sailean

Kurutziaga Ikastola

julene azpeitia lehiaketa • 2017 urtea



Hutsa

Gaur nire ama etxera iritsi eta supermerkatua huts hutsik zegoela esan du.... ni, pentsatzen geratu naiz.

Gero nire ahizpa negar batean etorri da, azterketa bat hutsik utzi duela eta... ni, pentsatzen geratu naiz.

Bat-batean nire aita sukaldean agertu da kolonia botatzera joan eta hutsik zegoela esanez... eta ni, pentsatzen geratu naiz.

Nire lagunek berriz beraien bizitza hutsik dagoela uste dute...

Baina zer da hutsa? Ezer ez izatea?

Batzuentzat badirudi hori dela hutsa, ezer ez egotea, edo guk ikus dezakegun ezer ez behintzat, baina nire lagunentzat berriz, sentimendu bat da hutsa... bakarrik egotea, agian?

Begira zuek, ni Maialen naiz eta ez ditut horrelako txorakeriak ulertzen, bakoitzak gauza ezberdin bat uste du, eta nik... ez dut ezer uste! Hutsa, hutsa da, HUTSA, besterik ez!

Badirudi, gauza errazak zail bihurtzea dela gizakiaren hobbyrik handiena... baina, ezer ez dagoen lekutik, ezin daiteke ezer atera!

Zer da barrutik hutsik geratzea? gorputza zabaldu eta barruko organo guztiak atera ote dizkiete nire lagunei? Ezinezkoa da hori!

Mundua noria bat da, edozer gauzari bueltak eta bueltak ematen dizkion noria bat, ni berriz bizikleta bat naiz, gauzak gero eta zuzenago egin orduan eta hobeto irteten zaizkit, bihurtzune bat dagoen bakoitzean... gauzak lerro zuzen-zuzenetik kanpo irteten diren bakoitzean, mmmm... zailtasunak hasten dira niretzat, eta horrenbeste buelta ematea, pentsaezina egiten zait!

Hutsari buruz hitz egiten hasi naiz, baina ez pentsa nire burutik irten denik ideia txoro hau, ez! Ezta kasualitate bat izan denik, ez! Fisikako irakasleak horri buruzko idazlan bat egitea agindu digu, noizko eta biharko! Eta hementxe nago ni, buruari ekin eta ekin zer jarriko ote dudan pentsatzen... ziur asko berak materiari buruzko azalpenak entzun nahiko ditu, baina nik ez dut horri buruzko ezertxo ere idatziko. Ni guzti hori baino sinpleagoa naiz! Ez dut uste hutsa materia eza denik, baizik eta hutsa, bera, existitzen ez den zerbait dela uste dut, jendeak bere bizitza dena baino txarragoa irudikatzeke erabiltzen duen zerbait. Badakit, ez nauzu ulertuko, baina lasai, ez zara bakararra, egia esateko... ez nau inork ulertzen.

Amari hutsa zer den galdetu eta bla bla bla....betikoa esaten dit, ahizpari galdetu eta bere bizitza amorosoari buruzko gauzak kontatzen dizkit.... ez dizuet esan baina 16 ditu eta badakizue... bere hormonak dantzan dabilta! Ezinezkoa da familia honetan ni bezala pentsatzen duen norbait aurkitzea. Azken aukera bezala nire neba txikiarengana jo dut eta galdera egiterakoan, besoak zabal-zabalik jarri eta honela oihukatu dit:

Ba, zedo patatedo!

Zero patatero esan nahi zuen, baina arazo txikitxo bat dauka hitz egiterakoan, eta r guztiak d bihurtzen ditu. Zerbait esaten duen bakoitzean ni barrez lehertzen hasten naiz, eta amari ez zaio batere gustatzen nire “jarrera” baina, ezin diot barregurari eutsi. Dena dela, gaira itzuliko gara bestela... gauza da, konturatu gabe, nire nebatxo maiteak soluzioarekin eman duela!

Beno, beno, beno, orain goazen idaztera, hala ez bada, hitz egin eta hitz egin, azkenean, ohera joateko ordua iritsiko baita eta idazlana egin gabe izango dut oraindik eta biharko da eta, eta... puf.

HUTSA

Hutsari buruzko hainbat eta hainbat iritzi daude, baina nire ustez hutsa ez da erreal, guk sortutako zerbait da, bakoitzak bere hutsak ditu eta garrantzitsuena horiek betetzeko gai izatea da. Ez da gauza bat, sentimendu edo sentsazio bat baizik, egonezin eta sufrimendua sortzen digun sentimendu bat, baina kasu honetan, gu gara sentimendu horren jabe. 0 bat, bakarrik eta hutsik ikusten dugun 0 bat, izan daiteke sufrimendu hori adierazteko modua, 0 lagun, azterketa batean 0 bat, 0 esperantza, 0 ilusio, 0 amets, 0 poztasun..., 0.

Baina zer da 0? Biribil bat da, bete gabe dagoen zirkulu bat, zirkulu hori bete eta gure huts guztiak desagertu egingo dira. Bi aukera daude beraz, 0 hori ezer izango ez balitz bezala hartu edo 0 hori amets ez, esperantzaz, ilusioz, lagunez, poztasunez... bete. 0 hori hutsik uzteko gai diren gauzak, 0a betetzeko gai ere badira.


Bukatu dut nire idazlana! Agian ez da irakasleak espero duena izango, baina nik ez dut hutsunerik izan nahi nire bizitzan eta, horregatik, sortzen zaizkidan guztiak, betetzen saiatuko naiz. Idazlan hau izango da entregatuko dudana, nahiz eta 0 izan aterako dudana nota.

Bihar nire nebari hutsune bat koloretako biribil polit bat dela irakatsiko diot, eta ez “zedo patatedo” aspergarri bat, gainera jolas polit bat egingo dut berarekin: ikusten ditugun 0 guztiak barrutik koloreztatzea! Egun luzea izango da biharkoa, beraz, orain lotara noa, amestuz, nire bizitzako huts guztiak desagerraraztea.

Gaur goizean idazlana entregatu eta arratsaldean bertan nota jaso dut, bai arina nire irakaslea!

Eta.....SORPRESAAAAAA nire nota 0 izan da, baina oraingoan... hankatxo batekin, 9 bat atera dut! Irakasleak berak emandakoagatik irten naizela azaldu dit, noski, nire idazlanak ez zeukan fisikarekin zerikusirik, ezta materia ezta horrelako ezerekin, baina originala izan dela eta bizitzari buruz pentsatzera behartu dudala esan dit, eta, nota ona merezi duela ere gehitu du.

Bestalde, nire nebatxoari proposatutako jolasa pila bat gustatu zaio eta aurkitu ditugun 0 guztiak orain ez dira hutsak, koloretako puntuak



baizik. Bihar jolasarekin jarraitzeko eskatu dit! Egia esanda, egun biribila izan da gaurkoa! Biribil-biribila, baina ez hutsa.

Nebarekin egindako jolasaren eragina ikusita, familia osoari beste jolastxo bat egiteko proposatu diot: etxeko sarreran, 0 erraldoi bat jarri dugu, eta egunero-egunero, bakoitzak egun horretan gertatu zaion zerbait idatzi beharko du, gauza onak izan behar dira, noski, horrela 0 osoa beteko dugu eta, beteta dagoenean, guztion gustuko zerbait egitea izango da plana: pelikula bat, palomitak, afari berezi bat...

Gurasoen ustez horrela idazketa eta irakurketa ere lantzen ditugu, nire ahizparentzat aldiz, (badakizue, hormonak dantzan dituena da) hau niri bururatu zaidan tontakerietako bat soilik da, baina azkenean parte hartuko duela esan du. Nire neba txikiarentzat, berriz, palomitak lortzeko biderik onena besterik ez da eta niretzat... niretzat hutsune guztiak desagerrarazteko modua da.

Gaur beste idazlan bat egin behar dut, baina oraingoan ez dauka bueltarik, atomoei buruzkoa da: protoiak, neutroiak, elektroiak... eta irakasleak nahiz eta nire originaltasuna bere gustukoa dela esan, gaian zentratu behar naizela adierazi dit. Oraingo honetan ere nire neba txikiaren laguntzaren bila joan naiz, bere ideiak oso onak iruditzen baitzaizkit beti, baina atomo bat zer den galdetu diodanean, harridura aurpegia jarri eta honela erantzun dit:

Bai!! Horixe izango da, sarreran dagoen gure biribiltxoaren izen berria!

Ez zaio arrazoirik falta, horrela imajinatzen ditut nik ere atomoak, baina idazlana egiteko...

Dena den, orain argi daukat, hutsuneei buruz egindako lanarekin pila bat ikasi dudala eta etxeko sarreran daukagun super atomoan jartzeko ondorio bikain bat atera dut:

Ez utzi hutsari zure bizona husten!



Ipuinak



Nerea Urresti Gandiaga

Irabazlea 17 -18 urte bitartekoen sailean

Ibaizabal Ikastola

julene azpeitia lehiaketa • 2017 urtea



Harrizko eskuak, arriskuak

Noizbehinka

Edo nire amamak esango lukeen bezala, *batzutan*.

Batzutan biluzten gara, maitemindu, mindu.

Mina barren barrenean sentitzearen saminaz maitemintzen dira batzuk, zorionez. Edo zoritxarrez, norik jakin.

Hasi naiz maleta egiten, badira hiru bat urte kontraesanez jositako maletak besterik ez ditudala egiten. Ordu gutxi barru ipar kostalderako trena hartu behar dut. Gabonak dira, eta badakizu, eztabaida amaigabe baten beldurrez etxera itzuli behar. Aspaldi konturatu nintzelako amarekin eztabaida inora gabekoetan murgiltzea baino, hobe zela trena galtzearen arriskuarekin jolastu. Eta hor nabil. Esan beharra daukat gustua eta dena hartu diodala jolas horri, azken uneko adrenalina puntua, maleta, nortasun agiria, dirua, burua, bai, dena bere lekuan.

123. jesarlekua, ea konpainia atsegina suertatzen zaidan, baina badaezpada ere liburuxka eskuan, marraztea suertatzen bazait edo. Ez da inor eseri, eta trena jada abian jarria da. Kostaldeak atsegin ditut, eta unibertsitatera joateko garaia iritsi zenean argi neukan gauza bakarra zen. Hurrengo etapako helmuga kostalderen batean izango zen, olatuek asko eskaintzen didate, eta zer esanik ez egunsenti batek transmititzen didan energiaz. Aspaldi galdu nuen lotsa bakardadean murgilduta eguzkia

ateratzen ikustera joateari. Amarentzat guztiz aldrebesak diren gauzak egiteari. Beste hainbat gauzen artean. Izan ere, konturatu naiz ekintza horiek definitu eta definitzen nautela, eta nik neuk ulertuta nahikoa dela.

Bi muxu, beste bi, urte berri on, lirainduta zaude, janaria eskas ala? Zein ondo geratzen zaizun ile laburra, opor guztiak geratzeko asmoz? Unibertsitatea ondo? Mutil lagunik?

Eta nik beste bi muxu, beste bi, berdin, kirola egiten hasi naizela berriz eta baietz, amarekin adostuta dudala opor guztiak geratzeko asmoa, eta unibertsitatea beti bezala, eta noski mutil lagunarena aipatu gabe ezin geratu, ez dudala “egokia” aurkitzen, eta jokaera errazetan murgildu, entzun nahi ez dutenei azalpenak ematea alferrik delako.

Ez dut aita ikusten, oilanda galdu baten antzera nabil atzera eta aurrera. Amak argitu dit, mendian dabilela oraindik, laster iritsiko dela. Naia bere logelan dagoela, ohe gainean zaudela seguru asko, non egongo zara ba. Eskailerak gora, txikitan zenbat jolas asmatzen nituen gogoratuz. Atea itxi orduko zenbat igotzeko gai nintzen, zenbat eta gehiago are neure buruarekin harrogo nengoela erakusteko modu bat.

Hego kostaldera “ihes” egin nuen artean herriko pisu batean bizi ginen, baina alaba zaharrena bazihoala aprobeixatuz, amamaren baserria berriztatu zuten gurasoek eta hara joan bizitzera. Ama beti izan da baserri zalea, eta aitak ezin ezetzik esan.

Atea irekita dago, hor zaude, ohe gainean beti bezain eder. Hizketalditxo ederra izan da gaurkoa, badakizu egunero edukiko nituzkeela horrelakoak baina ez etxe honetan, eta benetan bihotzez sentitzen dut. Aitaren autoa entzun dut eta behera jaitsi naiz korrika.

Bigarren eguna. Ez dut Mariaren berririk, barreneko sugarren artean dabilen korapilo amaigabeak ez dit loak hartzen uzten. Barrua erretzen dakien bakarra da, eta badaki. Nahita egiten duela ematen du askotan, baina irribarre tuntun hori azaleratzen zaionean denak ihes egiten du. Alde. Eta barealdi batean sartzen gara, biok elkarri zenbat zor diogun kontziente garela, baina ezer esan gabe, isilik. “Mekatxis”, eta nire buruak barre algara eragin dit. Nola demontre ez naiz kapaz hogeita hiru kilokada

urte izanda hitz itsusirik esateko; baina mihia erre dut. Ez nago ohituta hemengo kafera, ezta kafe makina ziztrin honetara ere. Sortarazi didan amorru horrek Maria birgogorazi dit. Bere “beti hain zu” esaldia xuxurlatzen didala iruditu zait, baina ez da bera izan, ez dit xuxurlatu. Neure burua engainatu dut, berriz. Mila zatitan banatuta dagoen maitalea naizela onartu beharrean nago.

Badakit Mariaren hitz goxoeak orduak besterik ez dituztela igarotzen airean.

Badakit ez zaidala komeni, baita neure buruaren aurka ari naizela ere.

Badakit ez nauela maite, ez nik maite dudan eran behintzat.

Badakit elkar izerditzen garenean gogoeta desberdinak izaten ditugula buru artean. Baina, neure burua engainatu dut, berriz. Nola egin aurre inguruan dudan honi, bera gabe. Nola.

Hirugarren eguna. Esnatu bezain laster joan natzaizu bisitatxo bat egitera. Atzo ez nintzen ohetik altxatzeko ere kapaz izan, barkaidazu.

Mende aurkitzen naiz, Mariaren mende. Eguneko xehetasun ziztrinena ere konpartitzeko gai naizelako berarekin, barrenetik ateratzen zaidalako. Galtzak apurtu zaizkidala, hortzetako eskuila ahaztu zaidala edo entrenatzeko gogorik ez dudala aurkitzen; bera etortzen zait burura lehendabizi kontu ziztrin horien eta gehiagoren artean. Eta idazteko desira, “iepa” bat, edo nola dabilen jakiteko grina, eta bat-batean noizbait grina hori galduko ez dudanaren beldurra.

Bukatu da, herrira nentorrela aitzakiatzat hartuta, hitz egiteari utzi behar geniola eskatzeko bi obulu eduki nituen, eta harro sentitzen nintzen nire buruarekin, gehiegi gauza onerako.

Berriro gainbehera, badakit ez dela damua, badakit ongi egin nuela. Hainbat gauza dakizkit eta hain gutxiri egin diezaioket aurre. Baina tira, bukatu bada hobe gai hau berriz ez aipatzea, herrian nago, zurekin, familiarekin, Gabonen xarma aurkitzen saiatu naiteke, ez duzu uste? Zure aurpegiak ideia ona iruditzen zaizula azaleratu dit.

Lagunak, dei pare bat egin eta arratsaldeko bostetan geratu naiz kafe bat hartzeko kale kantoï bateko tabernan, izena ez dut gogoan. Bueno, beraiek kafea, nik nire kolakauarekin jarraitzen dut, kontua ez da aldatu joan nintzenetik. Ez dakit inoiz arriskua hartzeko kapaz izango naizen, etxetik at kafe bat hartzearen arriskua. Tuntuna naizela pentsatuko duzu, denen burutik hori pasatzen baita ergelkeria hau entzuteaz bat, baina kafea hain iruditzen zait subjektiboa, hots, bakoitzak bere erara prestatzen du eta nola jakin gustuko izango dudan gustu hori. Aldiz, kolakauak mundua errazten dit, arriskurik gabe biziko banintz bezala. Nahikoa arrisku hartzen ditugu egunero erabakien aurrean, gainera kafearena ere hartu behar izateko. Kafea etxean, eta kalean kolakaua, eta kitto. Badakit Mariarena gehiago ez aipatzea erabaki dudala, ordea, Leire eta Alaitzekin begiradak trukatzear gain, beraiekin honetaz hitz egiteak lagunduko didala uste dut.

Laugarrena. Atzo zure alboan oheratu nintzen, momentu batez itzuli zinela uste izan nuen. Baina ez. Zazpi hilabete eta hamahiru egun daramatzazu ezer esan gabe, galdera neurekoiegia iruditu zait galdetzea ea zergatik “alde” egitea erabaki zenuen egun hartan, nik neuk ezer esan gabe alde egin bainuen duela hiru urte. Ez naiz ezer leporatzekotan egokiena.

Atzo tabernan geundela Manex ikusi nuen, zure gelakidea zena, zutaz galdetu zidan. Ez dakit nire susmoak diren baina zerbait zenutela esango nuke. Ez didazu erantzunik eman. Ama sartu da gelara, eta nik bertatik ateratzeko keinua egin dut. Gelditu egin nau ordea, nola nagoen galdetu dit. Sukaldean jesarri gara, eta hogeita hiru urtez hainbat eztabaida izan ostean, behingoz pelikuletako ama-alaba idealizatuekin konparatzeko gai izan naiz geure burua, beraien te berdearekin hizketalditxoa eginez pozik diruditen horiekin.

Ez diote elkarri minik egin nahi, eta banatzea erabaki dute aitak eta amak. Ez zaitetz triste jarri, badakizu berdin etorriko zaizkizula biak musu bat ematera goizero. Amak denbora gehiegi eskaini dio inguruari, amama, aita, ni, zu... Orain berarentzat behar du, berriz aurkitu behar du bere burua. Baina ez zaitu bakarrik utziko, ez zaitugu bakarrik utziko.



Mariarena kontatu diot amari, eta suposatu bezala ez dut erantzunik jaso. Baliteke eztabaidatzeaz kokoteraino egotea dagoeneko. Ez diot garrantzi handirik eman (nahi), denborak emango dit erantzuna.

Bosgarren goiza da jada herrian aurkitzen naizela, eta inoiz ez bezala, etxean sentitzen naiz. Zure gela atondu dut, eta gero aitarentzat biharko egiten ari nintzen oparia bukatu. Berrogeita hamar urte ez dira egunero betetzen. Gutun bat da, eta barruan, gaztetan gustatzen zitzaion *Akelarre* musika taldearen kontzertu baterako bi sarrera daude. Aizu, ez du balio kontzerturako esnatzea e! Nik ere joan nahi dut.

Urte zahar eguna da, Leirek konbentzitu nau gauean kalera ateratzeko, aspaldi ez dudala bota herri txiki honetako tabernetan zehar juergarik, eta umetako urduritasuna etorri zait, gustua eta dena hartu diot, ez dakit noiztik ez nuen zirrararik sumatzen barnean.

Gogora etorri zait amak telefonoz deitu zidan eguna, ez zen arraroa noski, astero deitzen baikenion elkarri, baina ospitalean zeundela kontatu zidan, koman. Ez nuen jakin nola erreakzionatu, bazirudien bizitza guztia nengoela prestatzen horrelako egoera bati aurre egiteko, eta behin egoeran jarrita ez nekien nondik jo, eta noski, hori entzuteaz bat eskegi nuen; ez nuen telefonorik hartu pare bat astez. Umore txarreko amets gaiztoren bat zela pentsatu nahi izan nuen lehenengo astean, ez zela egia. Kirola egiten hasi nintzen, denetik, burua bentzat distraituta edukitzeko edo. Baina tira, denborak denoi irekitzen dizkigu begiak, hori pentsatu nahi dut behintzat. Zurekin ere horrela izango ote da, modu erlatiboan sikiera. Ospitalea hain iruditzen zait tristea zu bezalako lore eder batentzat. Eskerrak jada etxean zauden, nahiz eta zure gelak ospitale batekoa eman. Hainbat traste artifizial lorea bizirik mantentzeko. Hain iruditu zait ironikoa erizaintza ikastekotan egon nintzela. Barre algara batek hartu dit lertu beharrean daukadan barrena; ohean igaroko duzun zortzigarren hilabetearekin batera makinak gelditu behar dituzte, ezin omen duzu nahi beste lo egin. Hori ere beraiek erabaki behar gainera.

Berriz arriskuak, ez al dute inoiz ihes egingo gure ingurutik? Nazkatuta naukate.

Seigarren eta azken eguna, berriz kale egin dizut. Koldar hutsa naiz, leporatu iezazkidazu nahi beste hitz itsusi, merezi ditut. Jada hartu dut hego kostalderako tren. Mariaren besoetara noa berriz, berotasun faltsuenera.

Etzi zortzi hilabeteak igaroko dira, oraingo honetan hegazkina hartu dut tren beharrean. Aireportuko taberna batean kafea eskatu dut eramateko, bai kafea. Gabonetatik bueltan bueltatu nintzenean nazkatuta nengoela gutxi esatea zen. Mugetatik at zer zegoen jakitea otu zitzaidan, baita egin ere. Ez dut Maria berriro ikusi, eta horrek neure buruarekin berriz topo egitea ekarri dit eta tira, nahiko ondo moldatzen garela ematen du. Kafea, zurito bat edo momentuan desira dudana eskatzen dut betiko kolakaeuz gain eta bizitza dibertigarriagoa dela aitortu beharrean nago, arriskuak hartzen hasi nintzenetik. Aireportuan aita neukan zain, eta kotxez egin dugu etxerako bidea, Euskal Herriko autobideak gidatu ditut lehenengo aldiz. Ogeiako hondartza txikian egin dugu geldialdia, zer nolako konpainia ederra den aita. Amak Mariaren zerbait kontatu ziola esan dit, eta irribarretxo bat erantzun diot soilik. Ulertu nau, eta hemendik aurrera neu izango naizela neure bide lagunik onena esan dit. Zenbat egia airean.



Etxean nagoen bigarren eguna, edo zortzigarrena orain dela hiru urtetik. Bisita izan duzu goizean, pare bat mediku. Biharko dena prest omen dute. Badakit ez nauzula bakarrik utziko, unibertsitatearekin hasi behar zara eta gidabaimena atera. Klase partikularrak eman nahi dizkizut, bion artean traketsena nor den argitu beharra daukagu! Neurekoia ez sentitzen erakutsi behar didazu denbora niretzat hartzen dudanean. Gainera, fisioterapiaren munduak behar ditu zure esku leun eta abilak, amamak ile-apaindegian bezala, nik ere astero eduki nahi dut hitzordua zure kontsultan. Eta zure ahotik aterako diren erantzunen zain ezin dut gehiago itxaron.

Noizbehinka nire aldamenean nabari zaitut,

Batzutan.



Ipuinak



Karmele Mitxelena Etxebeste

Irabazlea 18 urtetik gorakoen sailean

julene azpeitia lehiaketa • 2017 urtea



Hamar minutu

Lanpasaren gainean geratu da zutik, eskuak bizkarrean dakarren motxila urdinaren heldulekuetatik askatu gabe. Arnasestu ia isil bat dario ahotik, segundo erdi batez eten duena, arnas baten eta bestearen artean kabitu ezinik dirudien *kaixo* azkarra aireratzeko. Kopetaren mugetan mototsetik ihes egitea lortu duten ile bakan batzuk dauzka, libre izateko ahalegin zapuztuan izerdiak harrapatu eta azalera itsatsiak.

Ezker eskuarekin keinu egin, eta barrura gonbidatu dut. Bera pasa da lehenik, eta bere tabako usaina atzetik. Pentsatzen dut ahoan darabilen marrubizko txiklearen ahalmenetan gehiegi sinesten duela, eta bere sudur-zuloak baino ez dituela engainatzen. Ez naiz ni izango bada iruzur horren berri emango diona, eta ezkaratzeko eskailerek ondo gorritutako musugorriak dantzatzen jarraitu du.

Hego haize eroak atearen eskutokia lapurtu dit oharkabea, eta nik nahi baino indar gehiagorekin itxi du. Danbatekoak atera begira ipini gaitu biak, mamuren baten esperoan edo. Baina ez da inor agertu. Haizea da zirrikitu horietatik ibiltzen den bakarra, eta etorri bezala joan da isil-isilik.

Segundo batez neskaren begietan malenkonkia apur bat usaindu izana iruditu zait, ezkaratzeko freskuraren inbidiatan geratu zaizkio kopetako

ileak eta eztarriko arnasa. Aurrekotan bezala aterki-ontziaren parean geratu da diruaren zain, eta billeteetan eman diot adostutakoa. Kliska azkar batekin begietako malenkonia arrastoak ezabatu, eta ohiko mesfidantzarekin dena dagoen kontatzen hasi da.

Ezpain lehortuetan zenbaki isilak irudikatzen ditu, kokotzarekin esku batetik bestera pasatako billeteen erritmoa markatzen duen bitartean. Nik, ahaztu baino lehen, hamar minutu berandu etorri dela aurpegiratu nahi izan diot, bi orduak hamar minutu beranduago amaituko direla argi uzteko batik bat. Kontatzeari utzi gabe, une batez kokotzaren erritmoa bizkortu, eta baiezko isila eman dit.

Estilo gutxiko praka motzak daramatza, ipurmasailak guztiz estaltzera iristen ez diren horietakoak. Antiestetikoak dira, itsusiak, zatarrak, deserosoak begientzat. Oraindik ez dut praka horiek kalte baino mesede gehiago egiten dioten gorputzik ikusi. Goitik, berriz, mahukarik gabeko blusa zuria dakar, fina bezain gardena. Sabelaldean lotuta dauka korapilo batekin, eta nola geratzen zaion gustuko izango duela imajinatzen dut, erabiliaren erabiliz besape ertzak horitzen hasiak baititu.

Egia esan, gaurko sargoriarekin ez dago zer jantzi asmatzen erraz, biluzik egoteko ere bero egiten du. Larruazala kentzeko gogoia ematen du, arratsaldea supermerkatuetako gune hotzetan pasatzekoa, edo izotz-koskorretan bainatzekoa. Jendeari, ordea, neuronak egosten zaizkio, eta batek ezin du kalera lasai irten estanpatu loredunegiekin, arropa fosforitoegiekin, edo pamela handiegiekin topo egiteko arriskurik gabe. Badirudi horrelako egunetan zilegi dela nahi beste delitu estetiko burutzea. Baina tira, gutxienez biluzten denerako guztia du irabazteko.

Prakak baino luzeagoa den eskuin poltsikoan sartu ditu billeteak estu-estu eginda. Gaur egongelan egingo dugun galdetu diot inolako galdera ikurrik gabe, gorde berri dituen euroek horretarako eskubidea ematen baitidate. Uste nuen gisan, sorbalden mugimendu batekin, berdin zaiola esan dit, eta komunera joan da zuzenean arropak erantzera.

Korridore ertzean geratu naiz ni horma beixaren kontra. Gaizki disimulatutako urduritasuna lagun, etengabe begiratu dut komunerantz,



maizago begiratzeak atea lehenago zabalduko balu bezala. Atzoko pazientzia apurrak agortuta jaiki naiz goizean, eta egun osoa daramat arratsaldeko seiak noiz helduko zain. Lehertu egingo naiz lehenbailehen hasten ez bagara.

Egun osoko egonezina nahikoa ez, eta berandu etorri da gainera. Kasik ordura arte itxarondako orduak bezain luzeak egin zaizkit atzeratutako hamar minutuak. Beharbada ez zela agertuko pentsatzeak erraiak kiskali dizkit segundoz segundo, eta txirrina entzun dudan arte ezin izan dut arnasarik hartu, edo hori iruditu zait niri behintzat.

Ez du atea guztiz itxi, alboratu soilik, eta zirrikituko itzalen joan-etorriagatik biluzten ari dela antzeman dezaket. Ezkutuko ikuskizun honek barruan bor-bor sumatzen ditudan bulkadak bizitu baino ez ditu egin, eta beste behin egonezinak mina emateraino estutu dit arnasa. Itzalak gero eta haragi kolorekoagoak dira. Kontrola erabat galduta, burua begiek oraindik ikusten ez dituzten forma eta tonuak ikusten hasi da, irudi bat bestearen atzetik, presaka, korrika, arrapaladan, ia estropezuan, begiei guztiak ikusteko denborarik eman gabe.

Inoiz ez diot nire buruan hainbeste buelta eman dituen gorputz biluziari bere adinagatik galdetu. Egia esan, ez zait gehiegi axola, baina ezin ditu hogeitai baino askoz gehiago eduki. Ziur bere gurasoei alaba erretzailea dela jakiteak baino min gehiago egingo liekeela zigarro horiek erosteko bere gorputza saltzen duela jakiteak. Auskalo, batek daki. Beharbada tabako usainarekin bezala, susmorik txarrenak hartuta ere, ez usainduarena egingo lukete.

Unibertsitate urteak, ordea, horrelakoak izaten dira, eroak. Eta dirua errazegi gastatzen den urte horietan ez dago dirua errazegi irabaztea baino ezer hoberik. Berak ez dakit zergatik egiten duen, ez diot inoiz galdetu, eta egia esateko, hori ere berdin zait. Nik bera zergatik aukeratu nuen jakitearekin nahikoa dut.

Ikusi nuen lehen unetik banekien bera hautatuko nuela. Hala ere, zalantza antzestu bat azaldu nuen hasieran, elkarrekin pasako genuen ordu bakoitzaren prezioa merkatze aldera. Tamalez errazegi igarri zuen

bere azal zuriak eta ile gorriak niretzat ez zeukatela preziorik, eta ez zen inolako negoziazorik egon. Leuna, purua, kurbadura perfektua duten bular haragitsu eta ipurmasail borobilekin. Estreinatu gabeko panpinatxoa dirudi. Lastima ezker orkatilako arrosa tatuatua.

Hasiberri guztiei bezala, lehen saiotan nik erakutsi behar izan nion nola jarri eta nola ez. Nork bere nahiak ditu, eta besteari ulertaraztea zaila bada ere, konplexuena behin ulertutakoan desio bezain ondo gauzatzea izan ohi da. Normalean beti heltzen gara elkar ulertzera, jarrera hau orain, beste hau gero, aurrekoa berriz. Zorionez diruak gorputzak bakarrik ez, borondateak ere erosten ditu.

Azkenean zabaldu du atea, arroparik gabe, mundura jaio bezala. Mototsa askatzeko eta egongelako larruzko dibanean etzateko eskatu diot. Ni ere bertan jarri naiz, alboan eserita, sorbalda gainera erortzen zaion adats gorria miresten. Besoa luzatu, eta hatzekin kontu handiz orraztu diot ilea, izerdiak hezetutako buru-azaletik abiatu eta ia bularretaraino. Hamaika bider errepikatu dut mugimendua, harik eta ile bakoitza bere lekuan kokatu arte.

Normalean nire gelan egiten dugu, ohean. Azkenaldian, ordea, jarrera egokirik adostu ezinik gabiltza. Nik desio bezala jartzen denean ez dago eroso, aurpegieran antzematen zaio; eta eroso jartzeko esaten diodanean, gehiegi etzaten da. Bularrak alboetara erortzen zaizkio orduan, eta hori ipurmasailak guztiz estaltzen ez dituzten prakak bezain antiestetikoa da.

Horrelakoa da grabitate indarra, hitz batean esanda, nazkagarria. Gorputzak erakartzen ditu nahi duten edo ez galdetu gabe. Emakume garenok ederki asko dakigu hori, gurekin grinatu egiten baita. Dena erortzen zaigu pixkanaka, dena lurretik gero eta gertuago, azkenean gurekin akabatzea lortu, eta lur azpian sartzen gaituen arte. Bidean urteekin aliatzen da gainera, eta elkartzen direnean ez dago euren kontra borrokatuko duenik. Ordura arte zure amaren izterretan ikusitako zelulitisa zuretan agertzen hasten da. Masailak erortzen zaizkizu, eta jendeak amona zenaren gero eta antz handiagoa duzula esaten dizu; eta *push up* onenek ere ez dute zure bularrei lehengo forma biribil hura

ematea lortzen.

Azkenaldian maiz xamar elkartzen bagara ere, lehenengo minutuetan beti gaude biak urduri. Ez dugu ia hitzik egiten, elkar ulertzeko behar-beharrezkoa baino ez. Berak ez du elkarriketak hasteko saiakerarik egiten, eta nik izugarri eskertzen diot, isiltasuna asko gustatzen baitzait. Bere izena zein den ere ez dakit, eta ez diot galdetuko, ezezagunak izaten jarraitzea gustatuko litzaidake.

Kontu handiz paper zuria zikintzen hasi naiz. Eskuin besoa luzatu, eta alde bereko begia itxi dut lehenengo; ezkerraldekoa gero. Besoa berriz paper aurrera ekarri, eta hatz arteko ikatz-ziriarekin kalkulaturako proportzioak marraztu ditut. Zenbatetan ez dakit, baina behin baino gehiagotan errepikatu behar izan dut mugimendua distantzia egokiak hartu, eta lehen bozetoa egiteko. Lukas joan zenetik kostatzen zait distantziak ondo neurtzea, ez dakit noiz den gertuegi, noiz urrunegi. Denbora eskatu zidan, eta denbora eta distantzia hartu zituen.

Denbora eta distantzia bai, baina telefonoa ez, telefonoa ez du hartzen. Dagoeneko hilabete izango da nire deiei erantzuten ez diela. Eta bitartean ni hemen, neurriak hartu nahian, egunean hirutan deitzea gehiegi den edo gutxiegi ezin erabaki. Psikologoak dio telefonorik ez hartzea beharbada badela nahikoa erantzun. Baina ez dakit, nik badaezpada egunero hiruzpalau aldiz deitzen jarraitzen dut, halakoren batean erantzutea okurrizten bazaio ere.

Begi-niniak hara eta hona dabilzkit etengabe, nora begiratu ez balekitez bezala. Gorputz biluziaren kurba bakoitza erretinan gorde, eta paper zurira zuzentzen dira presaka, indarrez begiraturaz gero ikusitakoa paperean markatzeko gai direla sinetsita edo. Tamalez eskuarena baino ez da ahalmen hori, eta tamalez eskua ere alfer-alferrik saiatzen da erretinan gordetako marra guzti horiek imitatzen. Gaur ere ezin du.

Arraroa egiten zait marrazteak min ematea. Normalean sendagarri zait, lasaigarri, haragi bizitan izaten ditudan bihotzeko minentzat analgesiko bakarra izan ohi da. Baina eskumutur gaineko koskorrak azken hiru egunetan ez dio handitzeari utzi, eta pinturaz zipriztindutako trapu zahar koloretsuarekin estu-estu lotu eta tapatu arren, min ematen

jarraitzen du; mina sentitu egiten delako, ez ikusi, eta ezin da besterik gabe trazu tartaratu batekin ito. Ez, mina hiltzea hori baino zertxobait konplexuagoa da.

Trazu batean bestean baino indar gehiago egiten badut, abisatu gabe etortzen den sastada batekin izozten zait esku, ez eskuin, ez ezker. Trazua eteten da, eta etendako trazuak mugitzen ez diren eskuak eta ikatz-ziriak beste balio du, ezer ez. Orri zuri berri bat estreinatzea beste erremediorik ez da geratzen orduan.

Desesperatuki besoa mugitzen ahalegintzen naiz orri zuri berri bakoitzero. Suposatzen da benetakako artistek sorbalda mugitzen dutela marrazteko, ez eskumuturra. Baina besoa ere ahituta daukat. Altxa orduko dar-dar egiten du airean pultsua mantendu ezinik, eta trazuari bibrazio txikiak jaiotzen zaizkio. Nola ez, etendako trazuak beste balio du trazu irregularrak, ezer ez.

Baliteke azken hamar egunetan eskumuturra gehiegi behartu izana. Azken koadernoaren azken orriak baino ez zaizkit geratzen. Ez dut etxetik irteko denborarik izan, ez gogorik, ezta asmorik ere. Hozkailuan limoi erdia, letxuga zimeldua, marmelada ia agortua eta vodka botila hustu xamarra baino ez dira geratzen. Sukaldeko armairuetan azukre gogortua eta fideo pakete hasia. Zakarrontzia da gainezka dagoen bakarra, ez ditu kontserba-lata eta orri marruskatu gehiago onartzen.

Zabor poltsak betetzeko marraztea zaborra marraztea bezala da, berdin-berdina. Egunotan ikatz-ziriaren puntatik ez da nire duintasuna minduko ez duen ezer ateratzen. Gogotik ahalegintzen naiz horrela izan ez dadin, jaiki orduko jartzen naiz paperaren aurrean. Gosaltzeko ere ez dut denborarik hartzen, beharbada hartuta ere ez nukeelako azukre gogortua zeri bota jakingo. Baina ezin bizi honek goseak jan dizkit, eta bueltatu artean, uste dut zakarrontzian pilatuko zaizkidala paper zikinak eta duintasuna.

Hatz erakuslearekin papera ukitu hutsak min ematen dit. Hatz-mamia erreta bezala sumatzen dut, eta antzematen zaion gorritasunagatik baliteke hala izatea. Ohera joan aurretik xaboiarekin azazkal izkineko belztasunak garbitzen tematzeak ezer gutxirako balio dit, beti geratzen



zait azalaren parte dirudien iluntasun inkrustatu bat. Erabiliaren erabiliz gastatutako hatzarekin ikatzezko trazuak zapaldu, eta itzalak sortzen ahalegintzen naiz. Beti dira, ordea, itzal handiegiak, baldarregiak, itzal itzalegiak. Marratik ihes egitea lortu duten orbanak baino ez dirudite. Eta hatzak ezin duela gehiago oihukatzen dit, eskumuturrak aski dela, besoak haizea hartzera joateko, eta buruak jarraitzeko, saiatzeko berriro, ez geratzeko. Nola ez, temati, zakarrontziko paper pila handitzen jarraitzen dut.

Orri zuri berri bat estreinatu aurretik bertigoak estropezu egiten dit sabelean, barru- barruan sentitzen dut amaierarik gabeko zulo baten moduan. Izan ere, bat-batean egiten dakizun gauza bakarra egiten ez dakizula sentitzean izateari uzten diozu, eta orduan ez zara inor. Ero baten gisan hasten zara egiten eta egiten, ez geratzearren egiten, geratzea ezereza delako, eta ez dagoelako existitzeari utziko dionaren ikara baino okerragorik.

Ez desagertzeko ahalegin horietako batean, ikatz-ziri berri bat hartu, eta kuterrarekin punta zorrotzu diot. Lurrera botatuko paper zimurtu bat berreskuratu, eta ez minik hartu gabe, punta zorrotzegia haren kontra igurtzi dut indarrez. Ikatz-ziri zaharra nire ezinaren erruduntzat jo, eta berriaren esperantzan hasi naiz, berria ere zaharra bezain agudo kondentatzeko.

Orduaz galdetu dit, dagoeneko adostutako denborak betetzear egon

behar duela susmatzen hasia da. Erlojura begiratu gabe, hamar minutu falta direla esan diot hiru falta direla esan beharrean. Eskerrak hormako erlojuari ez nion pilarik aldatu. Denboraren presiopean, eta irabazitako zazpi minutuak aprobetxatzearren, marrazki berriarekin hastea erabaki dut. Pareko zirriborroa kendu, eta azken orriarekin aurkitu naiz. Azkena, oraingoan bai edo bai atera beharko du.

Eguna iluntzen hasi bada ere, hego haizeak epel jarraitzen du. Distantziatik antzeman dezaket adats gorriak inguratzen dion lepoaren izerdia, distira hezeak errazegi salatzen du. Ezker masaila dardarka hasi zaio, nahita ere kontrolatu ezin diren tik etengabeekin. Ezpainak luzatu, eta masailak ezin gehiagora arte tenkatu arren, gajoak ez du mugimenduak geratzea lortzen. Kutsakorrak dira gainera, nire eskua ere antzeko dar-dar batean hasten da paperean indar egiten dudan aldiro. Denak dio amaitzeko ordua aspaldi pasa dela, baina hamar minutu gehiago bakarrik behar ditut.

Ikatz-ziria eskuan urtuko zaidala dirudi, itsatsi egiten zait, ile gorriak lepo hezetuan bezala. Eskua praketan behin eta berriz igurtzi arren, bero eta urduritasun gehiegi arnasten dut, minutu batez bada ere, eskua lehor mantentzeko. Praka zikinak gehiago zikintzea besterik ez dut lortzen.

Begiak indarrez itxi, eta buruko min guztia puntu bakar batean pilatzen ahalegindu naiz. Azken egunetan *Diazepam* dosia hirukoiztu izanaz damutu naiz, ez zait bakar bat ere geratzen. Eskerrak hozkailuan vodka trago bat badagoen oraindik. Begiak zabaldu, eta itxi aurretik marraztutako zabor berarekin egin dut topo. Enegarren aldiz alferrik saiatu naiz konpontzen.

Beharbada ederregia da bostehun ea laurogeita hamalau bider zortziehun eta berrogeita bat milimetrotan sartzeko. Beharbada bere begien bizitasuna, bere masailen haragia eta bere ezpainen distira marraztezinak dira. Beharbada ile, ezpain eta masail gorriegiak ditu ikatz hutsez marrazteko. Beharbada gehiegi da nire eskuin eskuan kabitzeko. Beharbada ez dakit erantzuna. Dakidana da paperean agertzen den emakumeak ez duela diban gainean etzanda dagoenarekin ikustekorik. Paperekoa hain da tristea, hain itzalia, hain iluna, hain geldoa, begiratzen duen edonork nire autorretratu bat dela pentsa dezakeela.

Ez dut jakin zer erantzun berriz orduaz galdetu didanean. Gezur nabarmenegia iruditu zait aurreko hamar minutuak oraindik pasa ez direla esatea. Eta gezur txikiago bat esan asmotan, elkarrekin gezur handi bat osatuko luketen bi gezurrek egin didate ihes: hamar minututan amaituko dudala, eta luzatutako minutu bakoitza ordainduko diodala.


Ez zait xentimorik geratzen. Aspaldian ez dut koadrorik saldu, eta psikologoak sesioko berrogeita hamar euro lapurtzen dizkit. Gaur ere ilegorriaren edo argiaren faktura ordaintzearen artean aukeratu behar izan dut. Ez dut zalantzarik egin, baina orain damu naiz lehengo astean nituen aurrezki apurrekin urarena ordaindu izanaz. Tuntuna ni.

Ikatz-ziriari punta zorrozteko begirada paperetik urrundu dudanean, dardarak gorputzera hedatzen ari zaizkiola ikusi dut. Bai, nik ere badakit bukatu egin behar dugula. Orain arte ezin izan badut, dar-dar horiekin are gutxiago. Albora hurbildu, eta ile izerdituak lepotik desitsatsi dizkiot. Nekatuta dago, mugitzeko gogoz, egonezina begietan pilatzen ari zaio, eta zutitzeko nire baimena noiz jasoko zain dagoela dirudi. Ez dit beste erremediorik utzi, eta hamar minutuak eternitate bihurtu behar izan ditut. Ezker eskuaz adats gorrietatik gogor tiratu, eta eskuinaz lepoa ebaki diot ikatzez zikindutako kuterrarekin.

Mina eman dit eskumuturrak, indar egitean sastadaka eta dardarka hasi zait. Orain bai dela gorria, aurpegiraino iritsi zaizkit bere odol beroaren zipriztinak. Eskerrak lehengo astean ura ordaindu nuen, iturri azpian freskatu ahal izan ditut odola eta izerdia. Hozkailuko vodka botilaren azken pizarrak trago batean desagerrarazi, eta paperaren aurrean eseri naiz berriz.

Azkenean lasai hartu dut arnasa. Kuterra eskumuturrera lotutako trapuan garbitu, eta ikatz-ziri kamutsa zorrozten jarraitu dut. Badaezpada, pareko orri zikinduaren atzean begiratu dut beste behin, baina orri zuri berririk ez dela geratzen egiaztatu baino ezin izan dut egin. Hortaz, beltzaren gainean marraztea da aukera bakarra. Gogotik eragin behar izan diot eskuari orri osoa gauaren pare uzteko, eta gogotik eman dit mina. Borragoma hartu, eta ikatzaren gainean pixkanaka argiak ateratzen hasi naiz. Zorionez jada ez diote masailak, hatzak eta oinak dardarik egiten.

Bere begien bizitasuna joan da, bere masailen haragia erori eta bere
ezpainen distira itzali. Orain bai, orain kabitzen da koadroan.





Tessa Varela Elfrink

Irabazlea 11 -12 urte bitartekoen sailean

Landako Eskola

julene azpeitia lehiaketa • 2017 urtea



Zer da bizitza?

Zer da bizitza?
Galdetu dit Amaiak,
Baina nik ezin erantzun.

Zer da bizitza?
Galdetu diot amari,
baina berak ez dit erantzun.

Zer da bizitza?
Galdetu dio amak amamari
eta amamak erantzun dio:
- Bizitza dena da
eta dena bizitza da!



Oneka Etxebigel Uribe

Irabazlea 13 -14 urte bitartekoen sailean

Kurutziaga Ikastola

julene azpeitia lehiaketa • 2017 urtea



Nire bihotza

Nire bihotza perfume bat da,
eta perfume horretan,
nire bizitzako usainak nahasten dira:
limoia,
izpilikua
eta arrosa.

Nire bihotza, lorategi zabal bat da,
non arbola eta landare asko dauden,
batzuk hurbil,
beste batzuk urruti,
batzuk jada ez dira gogorapen zahar bat besterik.
Eta bertan daude
izpilikua,
limoia
eta arrosa.

Nire bihotza lore sorta bat da:
lore sorta horretan
denboran zehar bildutako loreak daude:
lore zimelduak,
lore koloretsuak,
arrosa,
izpilikua
eta limoia.
Amama: Izpilikua,
Amatxo: Limoia
eta ene Rose: Arrosa



Nerea Unzueta Jaio

Irabazlea 15 -16 urte bitartekoen sailean

Kurutziaga Ikastola

julene azpeitia lehiaketa • 2017 urtea



Kolore beltza

Beltza naiz,
baina ez naiz iluntasunaren jabe.
Beltza naiz,
dena den, ez naiz negatiboa.
Beltza naiz,
aitzitik, ez naiz beldurgarria.
Beltza naiz,
nahiz eta, zorte txarrik ez dudan banatzen.
Beltza naiz,
Hala ere, ez izan deskonfiatua nirekin.
Beltza naiz,
baina, ez naiz heriotzaren lagun.

Beltza izan arren,
eguna bezain argia naiz.
Beltza izan arren,
kolore zuria bezain positiboa naiz.
Beltza izan arren,
ez dut beldurrik ematen.
Beltza izan arren,
beste katu guztiak bezain zorte txarra dut.
Beltza izan arren,
besteekin bezalako konfiantza izan ahal duzu nirekin.
Beltza izan arren,
beste denak bezain bizia naiz.

Azken finean,
kolore bat bakarrik naiz,
edo izen bat,
kolore bati jarri zaion izen bat.
Zergatik ez,
kolore zuriari
beltza deitu?



Irati Baceta Agirre

Irabazlea 17 -18 urte bitartekoen sailean
Fray Juan de Zumarraga Institutua

julene azpeitia lehiaketa • 2016 urtea



Lurraren memoriak

Hau da gure praxia;
dogma idatzia
kondenatuaren zoria
lurperatuaren gabezia
non da memoria?
Gure Siria?
oroimen eskasia;
aitzakia.

Marketsa da auzia
trabak,
fusil ezkutuen burokrazia
Talde kalakaria
non da nire familia?

Ahantzuraren zauria;
gure miseria
mina eta egonezina,
non laga ahaideari krabelin gorria?
Esan maitea,
ze izar gorrik argitzen du zure hilerria?
nork tirokatu zuen zure bihotz gorria?

Zenbat Gernika munduan?
Palestinarren garrasia
arrazisten hesiak
Durangoko sarraskia
gure oinazearen historia
Picassoren irudia
Maravillasen argia
Lorcaren azken poesia
Lauaxetaren hil aurreko idatzia
Otxandio da uztailaren 22an

Zapalduen borroka isildua
darabilgu airean,
bihotzean
hemen ez daudenen artean
Euren istorioa da kontatu nahi duguna
jakin nahi duguna

Maite dugun hori
etxera ekarri,
sendien albora,
agur esan
Itaun ditugun galdera horiei
erantzun bat eman





Jon Ander Urkiaga Egidazu

Irabazlea 18 urtetik gorakoen sailean

julene azpeitia lehiaketa • 2017 urtea



Malabarista izan nahi dut

Malabarista izan nahi dut,
limoiak airera jaurti,
eta oreka bilatu,
gorriz margotutako egunei beha egon gabe.

Esnatzen naizen bakoitzean,
ispiluari begira gelditu
-oldarkor-,
begiradarik kendu gabe.

Laztan nazaten deseatu,
ferekak oparitu,
biluztu,
nor naizen zalantzan jarri gabe.

Aurre-juzgu iraungiz beteriko hozkailuei
elekttrizitatea ebatsi,
zoriontsu izateko
baimenik eskatu gabe.


Orratzek aurrera darraite etengabe
bihotzari izoztu zitzaion taupadan.
Gauerdia ataria besterik ez da
plazerik gabeko oihuen segadan.

Etixeratzean galdutako zapata da
delituaren proba bakarra.
Lorraz galdu bat besterik ez da
gau iluneko ufada.


Baina isuri arren errekek,
baina urratu arren oihalak,
erruz ditu bizkar gainean
malkoak eta jostorrazak.
Eta hautsontzi batean erreko ditu
ilargia eta izarrak.
Presarik gabe zain egongo da
noiz gatibatuko goiz-albak.
Espaloia ere berea duelako
ez du izutuko herioaren aldabak.

Leihoan itsatsitako lurrinean, zure zilborrera naraman mapa marraztuko dut,
gorputzean behera doazkizun izerdi tanta labainkorrei segika.
Koloretako puxikak eskumuturretatik lotu,
lehertu arteko lebitazioan, isolamendu izan nadin.
Mairidire lixatu berrien usainarekin oheratzea
aldamenekoaren ametsak disekzionatzen hasi aurreko
erritual fetitxista besterik ez delako.
Erantziko ditut hostoak,
adarrak biluztuko,
sustraietan gatibu izan arte;
gaur ez naiz haragi pusketa bat baino gehiago izango.

Ederregia zara
arratsaldeak zure telefono deiaren zain igaro ditzadan.
Argazkiekin konformatuko naiz,
usain umeldun liburu
eta ardo kopa batekin.
San Joan suetako ke artean bila nazazu.



julene azpeitia lehiaketa • 2017 urtea




Lander Bikandi Fonseka,
Egoitz Ikobalzeta Bilbao,
Jon Ojanguren Cajaraville

Irabazlea 11 -12 urte bitartekoen sailean

Kurutziaga Ikastola

julene azpeitia lehiaketa • 2017 urtea



Mutilak=Neskak

Estereotipoen gaia
nahikoa buruko min.
Zer gertatzen ote da
gizartearekin.
Beti egongo ahal gara
gai berdinarekin.
Mutilak futbolean
neskak panpinekin.

Zergaitikan mutilak
dira argiago.
Munduan zehar neskak
inoiz indartsuago.
Zientzian gizona da
garrantzitsuago.
Zeba emakumeak
dira gutxiago.

Zer ba izan behar dira
indartsuak gizonak.
Eta ahulak beti
emakumezkoak.
Demostrazio on bat
dira iragarkiak.
Mutilak beti urdinez
ta larrosez neskak.



Elene Elguezua Atucha,
Urko Sarriugarte Irisarri,
Naia Presno Magunacelaya,
Paul Magunazelaia Eguén



*Euskaldunak gara eta
harro gaude*

Euskara dugu maite
delako polita
hori bai, beti esanda
ondo erabilia
Euskaldunen iritziz
dena ikusita
oso pozik gabiltza
munduan bizita.

Euskaraz mintzatzea
hau bai poztasuna
hizkuntza badalako
bai edertasuna
erderaz mintzatzea
hori bai astuna
guretzat badalako
berde azeituna.

Euskaldunok daukagu
gure ikurrina
besteak begietan
benetako mina
guk kolore politak
bestea zikina
horregatik dakigu
zein den ezberdina.

Laster etorriko da
korrika eguna
Otxandiotik hasita
giro euskalduna
lekukoa pasatuz
hau ikuskizuna
Iruñan amaituta
euskara barrena.

Bertsoak botatzean
euskeraz bizian
bosteko ahapaldiak
egiteko nahian
poto egitearen
beldurra menpean
inprobisatzen gaude
minutu batean.





Iruri Altzerreka Martinez

Irabazlea 17 -18 urte bitartekoen sailean
Fray Juan de Zumarraga Institutua

julene azpeitia lehiaketa • 2017 urtea



Zuri

Doinua: "Bakardadeak" - Beira

1

Ohe barrena hain dago bero,
ze sentsazio, zelako luxu.
Amets arten galduta zaude,
begirada horren lausu
gertatu ohi den lez usu.
Egunak emanaz musu,
aurrerantza pausuz pausu,
ohetik jaiki ta oin epelak
lurrean jarri dituzu.
Jada itxarrik sentitu arren
amesten jarraitzen duzu.

2

Arropa denak erantzi eta
gutziz biluzik zara azaldu.
Ispilu hartan begiratu ta
ez zara sentitzen salbu,
gizarte honen esklabu.
Urak erortzen dihardu,
hark bidea egina du.
Orain ez duzu beste gogorik
hauxe egitea salbu,
begiak itxi ta une batez
lurrin mardulean galdu.

3

Gelara sartu zara toailan
atzekaldean utzita dutxa,
ta zurekiko pentsatu duzu
zerez estali gorputza,
itxurak duen hizkuntza.
Zein da guzti honen funtsa?
soilik arrotzea hautsa,
zure aurpegi hori estali
duzu geruzaz geruza,
ta ez dakizu hau plazerra den
edo errutina hutsa.

4

Begiratzean ilun da dena,
oharkabean heldu da gaba,
ta lagunekin zaude kaletik
senti daiteke parranda,
ta jendearen algara.
Letra aditzean, hara!
gorputz osoan ikara.
Lehen zeneukan zirrara hori
desagertu zaizu jada.
Amaierarik gabeko tunel
batean sentitzen zara.

5

Orduak arin doaz aurrera
eduki duzu nahiko jardute,
ta etxerantza bidean zoaz,
izarrek argitzen dute,
bidexka eta zerupe.
Nahiz izan mila bertute,
eta ez zenuen uste,
alboetako itzal ta hotsek
beldurra sortzen dizute,
ta ausart plantak gauzatu arren
aske izan nahi zenuke.

6

Berriz argitzen hasi orduko
etxean zaude dagoeneko,
zapuztutako esperantzaren
ta nekearen menpeko,
laztan batzuen eskeko.
Sentitu arren hobeto,
epeltasuna tarteko
zure bidea jarraitu duzu
jausi aurretik lo seko,
ohean sartu zara berriro
ametsetan murgiltzeko.






Aitor Albistur Pulido

Irabazlea 18 urtetik gorakoen sailean

julene azpeitia lehiaketa • 2017 urtea



Panpina

Doinua: Itsasoa laino dago

1

Komeni ez
den ohituran,
norberaren
penen mugan,
bizipen txar
bat, itxuran,
hobe bizi
da ahanzturan.
Oroitzeko
abenturan
mina sortzen
denez gudan...
Oroitzeko
abenturan
zokoratu
al zintudan?

2

Armairua
txukuntzeko
ohikotik hain aparteko
erabaki
bat tarteko
irten zara
nik hartzeko!
Zer zenbiltzan
bertan seko,
hor zeundenaz
ahantzeko?
Zer zenbiltzan
bertan seko,
ahanzteaz
oroitzeko?

3

Hogei urte,
alajaina!,
igaroko
ziren, baina
egun ere
zein liraina
zaren Nancy
erizaina!
Nahiz daukazun
zahar usaina,
itxura hain
da bikaina!
Nahiz daukazun
zahar usaina,
ni zahartu naiz,
nahi ez aina

4

Alabaren
urtemuga
zeturrenez
zein gustura
makurtu zen
gure gura
panpina zen
erregura!
Berarentzat
zinen hura,
ametsa zen,
zen lilura.
Berarentzat
zinen hura,
ezereza
bihurtu da

5

Motiborik
egongo da,
alabaren
hautzarora
itzultzeko
zaren froga
itzul dadin
egungora...
Joan egin
zen gerora,
bere bide
propiora?
Joan egin
zen gerora,
jakin nahiko
nuke nora!.

6

Hura izan
zen sorpresan
zalantzaren
kezka zetzan
eta hasi
ginen kexan,
ezer onik
ez zenez han!
Ez zigun deus
ere esan,
lasai ihes
egin zezan?
Ez zigun deus
ere esan,
guk sufritu
ez genezan?



7

Oroimena,
nahiz antzestu,
ezin denez
ezereztu,
egi gordin
hau saihestu
nahiak zentzu
asko ez du...
Nancy, nahiz zu
heldu estu,
deus ez dago
nire esku...
Nancy, nahiz zu
heldu estu,
alaba nahi
dut babestu!

8

Ezinbestez,
Nancy lerdan,
joandako
alabaren
akordua
nola zaren,
luze egin
dut hasperen...
Berriz gorde
baino lehen,
amets egin
nahi dut hemen...
Berriz gorde
baino lehen,
ea bera
itzultzen den...

